ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK 2

1.- KONTRATUAREN XEDEA, ARAU APLIKAGARRIAK ETA ESLEITZEKO ERA 2

2.- KONTRATUAREN BALIO BALIOETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....2

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA 3

4.- AGIRIAK ETA DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA.....3

II. – ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.....4

5. – ENPRESA LIZITATZAILEAK.....4

6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA. 5

7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA.....7

III. ADJUDIKAZIOA.....8

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. 8

9.- BEHIN BETIKO BERMEA 10

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA.....11

IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.....12

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK.....12

12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.....12

V. KONTRATUA BURUTZEA 13

13.- KONTRATUA BURUTZEA 13

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA 21

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA 21

ZERBITZU KONTRATUA. PROZEDURA IREKIA.

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA.

I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1- Kontratu honen xedea da agiri honen hasierako Ezaugarrien Taulako A) letran azaltzen den zerbitzua egitea.

1.2.- Ezaugarrien Taulako A) letran ezarriz gero, kontratuaren xedea bertan azaltzen diren loteetan zatituko da. Ezaugarrien Taulako A) letran mugak ezartzen dira loteetarako eskaintzak aurkezteko eta loteak adjudikatzeko.

1.3.- Zerbitzua agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezartzen denarekin bat etorriz egin behar da.

Ondorio guztietarako, administrazio baldintza partikularren agiri hau, Ezaugarrien Taula, baldintza teknikoen agiria eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko.

1.4.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoen agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena (horren bidez Espainiako antolamendu juridikora aplikatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak), bereziki bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan xedatutakoa kontuan hartuz; 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (HAKLAO); Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.

1.5.- Kontratua prozedura irekiaren bitartez adjudikatuko da; prozedura hori SPKLren 156.-158. bitarteko artikuluek eta HAKLAOren edo horren ordezko arau xedapenaren artikulu egokiek arautzen dute.

2.- KONTRATUAREN BALIO BALIOETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio oinarria agiri honetako Ezaugarrien Taulako B) letran zehazten dira. **Nolanahi ere, lizitatzaileek adierazi beharko dute guztirako prezioaren zer zati dagokion ingurumen ebaluazio estrategikoaren (IEE) agiriarekin.**

2.2.- Badago behar den kreditua kontratu hau betetzeak administrazioari ekartzen dizkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko; ezaugarrien taulako C) apartatuko aurrekontu aplikazioan zehazten da.

Adierazten bada gastu espediente baten aldez aurreko izapidea dela, prestazioak egikaritzen hasteko ezinbestekoa izango da kasuan kasuko ekitaldiko indarreko aurrekontu taldean kreditu egoki eta nahikoa egotea.

2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikazioan ezarriko da; ezin da izan administrazioak egindako lizitazio tasa baino gehiago.

Ondorio guztietarako, ondokoak sartzen dira kontratuaren prezioan: enpresa kontratistak kontratua burutzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak, indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko tasa guztiak, eta zerga eta lizentzia guztiak, udalenak, probintziakoak zein estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1.- Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzearen arriskuak.

3.2.- Prezioen berrikuspena bidezkoa denez zehazteko, Ezaugarrien Taulako D) letran ezartzen dena hartuko da aintzat. Berrikuspena bidezkoa bada, hala adieraziko da apartatu horretan.

Prezioak berrikusteko araubide juridikoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) 103.–105. bitarteko artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (HAKLAO) 104., 105. eta 106. artikuluetan ezarritakoa izango da.

3.3.- Ezaugarrien Taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua burutzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere berrikuspena eragingo, luzapenaren arrazoia Administrazioari egotzi ezean edo ezinbestekoa izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan ezartzen dira).

4.- AGIRIAK ETA DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio baldintza partikularren agiria, baldintza teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira; gainera, SPKLren 138.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, Ezaugarrien Taulako E) letran aipatzen den Administrazioaren zerbitzuaren bulegoetan eskuratu ahal izango dira jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epealdian.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek zerbitzu horretara jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.

Enpresa interesdun batek ezarritako epealdian agiriei buruzko informazio osagarria eta gainerako agiri osagarriak eskatuz gero, SPKLren 138. artikuluan eta HAKLAOren 78. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da

Agiriez eta dokumentazio osagarriez eskatzen den informazioa eskaintzak jasotzeko ezarritako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez eman behar da (izapidetzea presazkoa bada, hiru egun lehenago; salbuespena: harmonizatutako arauei lotutako kontratuetan, lau egun lehenago), baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkezten bada edo kontratazio organoak kontratuaren ezaugarriak eta prozedura kontuan hartuta agirietan ezartzen duen epealdian, Ezaugarrien Taulako E) letran ezartzen den bezala.

Baldin eta eskaeraren xedea preskripzio teknikoen agirian, administrazio baldintza partikularretan edo gainerako dokumentazioan ezartzen den zerbait argitzea bada, erantzuna loteslea izango da eta kontratatzailearen profilean agertuko da.

Kontratu espedienteari buruzko informazio guztia eta administrazioaren kontratu jardunaren inguruko datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profilean agertuko dira, SPKLren 63. artikuluan ezartzen den bezala. Kontratatzailearen profila aztertzeko Administrazioaren atarian sartu behar da; atari aurrean aipatutako Ezaugarrien Taulako E) letran zehazten da.

II. – ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.

5. – ENPRESA LIZITATZAILEAK.

5.1. Kontratuaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean ez badaude, eta ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute.

Halaber, enpresek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko galdagarria den enpresa edo lanbide gaikuntza eduki beharko dute (ezaugarrien taulako F apartatuan zehazten da).

Pertsona juridikoek ezingo dute kontraturik lizitatu, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena daukala ziurtatzeko, enpresa beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, zein ere den haiekin dauzkan loturen izaera juridikoa, kontratu osoa burutu bitartean, kaudimen hori eta baliabideak benetan edukiko dutela frogatzen badu eta joko duen erakundeak ez badauka kontratatzeko debekurik, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

SPKLren 69. artikuluarekin bat etorriz berariaz eratzen diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkez dezakete eskaintza. Elkartea osatzen duten enpresa guztiek ziurtatu beharko dute jarduteko gaitasuna eta kaudimena dauzkatela, ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala, hurrengo klausulek aipatzen dituzten agiriak aurkeztuz. Agiri pribatu batean izenpetuko duten enpresen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza eta, kontratuak dirauen bitartean, administrazioaren aurrean guztien ordezkaritza osoa izango duen pertsona edo erakundea adierazi behar dituzte, baita adjudikaziodun ateraz gero enpresen aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere. Dokumentu hori elkarteko enpresa guztien ordezkariek sinatu behar dute.

5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskaera (eta, behar denean, eskaintza) aurkezteak berekin ekarriko ditu honako hauek:

- agiri honetako klausulak, Ezaugarrien Taulako zehaztapenak, preskripzio teknikoen agiria eta kontratuzko gainerako agiriak osorik eta batere salbuespenik eta baldintzarik gabe onartzen dituztela.
- aurkeztutako datu guztiak zehatzak izatearen eta kontratuak xede dituen prestazioak kontratatzeko eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzearen erantzukizunpeko adierazpena.
- baimena mahaiari eta kontratazio organoari sektore publikoko lizitatzaile eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean zein Europar Batasuneko estatu kideen operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Enpresek ezingo dute prozedura honetan parte hartu, zuzenean edo zeharka, eurei lotutako enpresen bitartez, kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestatzeko agiriak egiten parte hartu edo kontratu honen prozedura prestatu bitartean kontratazio organoari aholku eman badiote, parte hartze horrek lehia faltsutu edo gainerako enpresa lizitatzaileen aldean tratu pribilegiatua ekar baliezaieke.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Banako lizitatzaileek ezin izango dute aurkeztu beste eskaintzarik beste enpresa batzuekin egindako aldi baterako elkarte batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.

Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Udalaren atarian dago (Ezaugarrien Taulako E) letran aipatzen da).

Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak egiteko lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema hori erabili behar da, XIII. eranskinean azaltzen diren jarraibideak aintzat hartuz. Ezaugarrien Taulako I) letran aipatzen den epealdiko azken egunera arte egin ahal izango dira. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar baliabide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa udal kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu beharko da (egoitza Ezaugarrien Taulako H) letran zehazten da) edo postaz bidali behar da; hori Ezaugarrien Taulako I) letran zehazten den epealdiko azken eguneko arratsaldeko ordu biak arte egin ahal izango da. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da. Kasu horretan, ez dagokio XIII. eranskina betetzea.

Eskaintza eta atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu behar da eta egun berean Udalaren Erregistro Orokorrari bidalketaren berri eman behar zaio fax edo telegrama bidez. Gainera, bidalketaren berri bidal daiteke posta elektronikoz (helbidea Ezaugarrien Taulako E) letran zehazten da), SPKLren 80. artikuluan ezartzen den bezala.

Bi betekizunok bete ezean, dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitu ondoren aurkezten bada proposamena, ez da onartuko Aipatu datatik hara egutegiko hamar egun igaro eta dokumentazioa ez bada jaso, hura ez da onartuko inola ere.

Enpresa lizitatzaileak hiru gutun azalak (A, B eta C) itxita aurkeztu beharko ditu (bakoitzaren barruan sartu behar den dokumentazioa gero zehaztuko da), eta datu hauek adierazi beharko dira bakoitzaren gainean:

a) zein lizitaziotara aurkezten den
b) enpresaren izena.
c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak eta enpresan duen kargua, dena erraz irakur daitekeen moduan.

Gutun azalak nahitaez sinatu behar ditu enpresa lizitatzailearen ordezkariak.

Eskaintza aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariek sinatu behar dute.

Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatzaileak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean.

6.1.- **A GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA.** Eskaintza ekonomikoan lizitazioaren xede den zerbitzua emateko prezioaren zenbatekoa adierazi behar da. Aparteko partida batean zenbateko horri dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren karga zehaztu behar da (eredua **I.**

eranskinean).

Gainera, eskaintzak ezaugarrien taulako M) apartatuan adierazitako gainerako adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko aukera ematen duten dokumentuak aurkeztuko dira, formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeenak.

6.2.- **B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA HAZTATU BEHAR DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE PERTSONALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA**. Ezaugarrien Taulako J) letran ezarriz gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: M) letran ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak; preskripzio teknikoen agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak.

Ezaugarrien Taulako J) letran ezarriz gero, Administrazioak enpresa lizitatzaileei eskatu ahal izango die kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera kontratuaren xedea behar bezala burutzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, **II. eranskineko** ereduaren arabera).

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua **III. eranskinean**).

Proposamena eta erantsitako dokumentazioa postaz bidaltzen badira, gutun azalean datorrenaren zerrenda zenbakitu bat adieraziko da beste orri batean.

6.3.- **C GUTUN AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA**. Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da (jarraibideak **IV. eranskinean**), Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko inprimaki normalizatuarekin bat datorrena eta esaten duena lizitatzaileak betetzen dituela administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak, kontratazioko Ezaugarrien Taulan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezartzen direnak, SPKLren 140. artikuluan arautzen den bezala.

Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLren 75. artikuluarekin bat etorriz, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du honelako kasuetarako behar den informazioarekin, IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera.

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du (jarraibideak IV. eranskinean). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela kontratua adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko, SPKLren 69.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko inprimaki normalizatuaren arabera, enpresaren edo, hala balegokio, aldi baterako enpresa elkartearen helbide elektroniko bat sartu beharko da, dagozkion jakinarazpenak hara bidali ahal izateko, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da lizitatzailea enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, behar denean (eredua **V. eranskinean**).

6.4.- Kontratua adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren artean Administrazioak egiaztatu ahal izango du egia denez adierazten dena C gutun azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatzeko gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta,

behar den kasuetan, Ezaugarrien Taulan burutzapen baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen hutsegitea baita, eta horrek behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermerik jarri ez bada, edo eratu beharrik izan ez bada, bermearen adinako kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, Udalari eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dira, hain zuzen jarritako bermearen zenbatekoaz gorako kopurua.

7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA

7.1.- KONTRATAZIO MAHAIA. Jasotako eskaintzak aztertzeko kontratazio mahaia eratuko da. Mahai hori Ezaugarrien Taulako K) letran ezarritako moduan osatuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 2. eta 3. xedapen gehigarrietan toki erakundeentzat aurreikusitakoaren arabera.

Baldin eta balio iritzien bidez zenbatzen den irizpide balorazioaren haztapena handiagoa bada modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideen araberako balorazioarena baino, kalifikazio egokiko langile adituz osatutako batzorde baten esku utzi ahal izango da, edo, bestela, erakunde tekniko espezializatu bati agindu ahal izango zaio (batzordea edo erakundea ezaugarrien taulako K) apartatuan dago zehaztuta).

7.2.- ESKAINTZEN AZTERKETA. Aldez aurretik, kontratazio mahaiak C) gutun azalen edukia aztertuko du eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Adierazpenak egiaztatzeko, mahaiburuak gutun azalak irekitzeko aginduko du. Mahaia konturatuko balitz aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, enpresa interesdunei emango lieke horren berri, eta enpresa lizitatzaileari, gehienez, hiru egun balioduneko epea onartuko lioke akatsa zuzentzeko.

Kontratazio mahiak, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu eta, halakorik balego, sumatutako akatsak edo hutsuneak konpondu ondoren, lizitaziora onartutako enpresak zehaztuko ditu, berariaz adieraziz errefusatutakoak eta errefusatzeko zioak.

Kontratazio mahaiak B gutun azalak irekiko ditu (baldintza teknikoak eta balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa). Gero, B gutun azaletako dokumentazioa baloratu behar tuen organoari emango zaio.

Ezaugarrien Taulako L) letran ezartzen diren tokian, egunean eta orduan kontratazio mahaiak lizitaziorako onartutako enpresen A gutun azalak irekiko ditu egintza publiko batean, hau da, eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei dagokien dokumentazioa dituzten gutun azalak.

Egintza horretan, A gutun azalak ireki aurretik, C gutun azaletako erantzukizunpeko adierazpenen egiaztapenaren ondorioz lizitaziorako zer enpresa onartu diren eta zeintzuk baztertu diren jakinaraziko da eta, adjudikaziorako kontuan hartu behar badira balio judizioaren arabera haztatzen diren balorazio irizpideak, B gutun azaletako dokumentazioetako eskaintzen alderdi teknikoen balorazioa irakurriko da.

7.3.- ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA.- Eskaintzaren bat ez badator bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio oinarria gainditzen bada, ezarritako eredua funtsean aldatzen bada, zenbatekoan errore nabarmena badago, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, Kontratazio Mahaiak bertan behera utziko du ebazpen arrazoitu baten bidez (APKLAO, 84. artikulua).

Hain zuzen ere, eskaintza lizitaziotik kanpo uztea ekarriko du balio judizioa eginez haztatu behar

diren irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun azal batean aurkeztu beharra ez betetzeak (B gutun azala).

7.4.- ESKAINTZA BAXUEGIAK.- Eskaintzak baxuegitzat jotzeko Ezaugarrien Taulako N) letrako parametroak aplikatuko dira. Eskaintza horiek direla eta SPKLren 149. artikuluan eta HAKLAOren 85. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Kontratazio mahiak anormaltasun presuntzioa duten eskaintza bat edo batzuk identifikatzen dituenean, errekerimendua egin beharko die haiek aurkeztu dituzten enpresa lizitatzaileari edo enpresa lizitatzaileei eta behar besteko epea eman prezioen, kostuen edo eskaintzaren anormaltasuna definitzeko erabilitako beste edozein parametroren maila txikia arrazoituta eta zehaztasunez arrazoitu eta banantzeko, informazio hori eta horretarako egoki diren agiriak aurkeztuz.

Enpresa lizitatzaileak epean emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du kontratazio mahaiak eta onartzeko edo errefusatzeko proposamena bidaliko dio kontratazio organoari, arrazoituta.

Kontratazio organoaren ustez, enpresa lizitatzaileak egindako justifikazioa eta dagozkion txosten teknikoak aztertuta, bildutako informazioak ez badu ondo azaltzen enpresa lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila txikia eta, beraz, eskaintza ezin bada bete ezohiko balioak sartzeagatik, lizitaziotik kanpo utziko du. Oro har, anormaltasun presuntzioa duten eskaintzak errefusatuko dira ikuspuntu tekniko, ekonomiko edo juridikotik hipotesi edo jardunbide desegokietan oinarritzen badira.

7.5.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.- Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako Ezaugarrien Taulako M) letran garrantziari eta haztapenari dagokionez ordena beherakorrean idatzita dauden balorazio irizpideei jarraiki. Hala, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu eta bere proposamena egingo dio kontratazio organoari.

Irizpide horiek ezarri ez badira, adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintzaren arteko berdinketa gertatzen bada, SPKLko 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzeko, bertan agertzen diren ordenan eta erreferentziatzat eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna hartuta.

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

8.1.- SPKLren 150. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio mahaiak goibeherako hurrenkeran sailkatuta igorriko dizkio kontratazio organoari aurkeztutako eskaintzak (salbu eta baztertuak izan direnak edo neurriz edo ohiz kanpokotzat jo direnak), bai eta akta eta esleipen proposamena ere.

8.2.- Adjudikazio proposamena egin zaion enpresa lizitatzaileak kontratazio organoaren aurrean eta kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu egin beharko du Administrazio Klausula Berezien Agiriaren 8.3. klausulan adierazitako gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko agiriak dituela eta horiek baliozkoak direla.

Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direla eta kontratatzeko debekurik ez dagoela erabakitzeko une erabakigarria eskaintzak aurkezteko epearen amaierakoa izango da eta kontratua formalizatzeko unean iraun beharko dute.

Aurrekoa betetzeko, Udalak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatzaileari eskatuko dio

errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez ditzala honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatzaileari dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluko 1. zenbakiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela (edo baimena eman kontratazio organoari frogagiriok zuzenean eskuratzeko); badauzkala Ezaugarrien Taulako J) letran ezartzen denaren arabera kontratua burutzeko behar diren baliabideak; agiri honetako 9. baldintzaren arabera behar den behin betiko bermea eratu duela.

8.3.- 140. artikuluko 1. zenbakiko a) – c) letra bitartean aipatzen diren inguruabarrak justifikatzeko agiriei, bai enpresa lizitatzaileenei, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresenei, dagokienez, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun agiria, eskabidea bere izenean edo ahaldun gisa aurkezten duenarena.

b) Pertsona juridiko diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan jasotako eratze edo aldatze eskrituraren bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikagarri dituen merkataritza legeek hala eskatzen badute. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna erakundearen jardunari buruzko arauak jasotzen dituzten eta, beharrezkoa bada, erregistro ofizial egokian inskribatuta dauden eratze eskritura edo agiriaren, estatutuen edo sortze aktaren bidez egiaztatu behar da.

c) Ahalordea, honetarako behar bestekoa, beste baten izenean agertzen direnen edo proposamenak sinatzen dituztenen aldekoa. Enpresa lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalmen horrek Merkatu Erregistroan egon beharko du inskribatua. Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetze hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritzako Erregistroan jasota egon beharrik.

d) Finantza eta ekonomia kaudimenaren eta gaitasun teknikoaren edo lanbide gaitasunaren frogagiriak eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaikuntzaren frogagiriak (Ezaugarrien Taulako F) letran azaltzen dira), Legearen 87. eta 90. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxieneko sailkapen eta kategoria talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta kontratuaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako kontratuaren CPV kodea hartu behar da aintzat).

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzaileek ez dute aurreko letretan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko. Salbuespen hori ziurtagiriaren beraren bidez egiazta daitezkeen gaitasun kaudimenaren inguruabarren egiaztagiriei baino ez dagokie.

Aldi baterako elkartea eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko idatz zatietan eskatzen den dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorriz.

SPKLren 65. – 76. eta 95. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, kontratazio zerbitzuak eta mahaiak argibideak eskatu ahalko dizkiote enpresari aurkeztutako ziurtagiriei eta agiriei buruz edo beste osagarri batzuk aurkezteko eskatu. Errekerimendua jaso eta bost egun balioduneko epean bete beharko du hori.

Atzerriko enpresen kasuan, VI. eranskinean ezarritakoa beteko da.

8.4.- Kontratazio organoak, eskuragarri dauden datu bitartekaritzako plataformen bidez, adjudikazio proposamenaren xede den enpresa lizitatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak lortuko ditu, bai eta ekitaldi honetan jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen

informazioa ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean.

Kontsulta hori osatzeko, enpresa hori aipatutako zergan baja emanda ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio organoak dokumentu hauek aurkezteko eskatu ahal izango dio adjudikazio proposamena jaso duen enpresa lizitatzaileari:

- Lizitatzailearen zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.
  Merkataritzakoak ez diren sozietateak edo nortasun juridikorik ez duten erakundeak izanik, ziurtagiria(k) sozietate, erakunde edo establezimenduaren titularrari edo titularrei buruzkoak izango dira.

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria, edo alta zerga horren matrikulan jarduera ekitaldi horretan hasi bada, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Gainera, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren ziurtagiria, erakunde horren kuoten ordainketan egunean egotea ziurtatzen duena.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizial bateko inskripzioaren ziurtagiria indarrean daukatela egiaztatzen edo egiaztatu dutenek ez dituzte ziurtagiri horiek aurkeztu beharko indarraldiak dirauen eta ziurtagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez diren bitartean. Enpresak berariaz adierazi beharko ditu puntu horiek kontratua formalizatzen den agirian, Ekonomia Jardueren Zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena izan ezik.

8.5.- 8.2 puntuak aipatzen duen errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada, enpresa lizitatzaileak bere eskaintza kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe, zehapen gisa, eta dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo enpresa lizitatzaileari, eskaintzak sailkatutako hurrenkeran.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

9.1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen enpresa lizitatzaileak bermea jarri beharko du kontratazio organoaren esku: eskaintzako azken prezioaren ehuneko 5, gehienez, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe (Ezaugarrien Taulako O) letra).

SPKLren 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan berme osagarria eskatu ahal izango da, Ezaugarrien Taulako O) letran ezartzen bada.

9.2.- Udalak enpresa lizitatzaileari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez dezala bidezko behin betiko bermea eratu duela frogatzen duen dokumentazioa.

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, baldintza hori betetzen ez badu, administrazioak ez du haren aldeko esleipena egingo, eta SPKLren 150.2 artikuluko azken lerrokadan adierazitakoa aplikatuko da.

9.3.- Bermea eratzeko SPKLren 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onartutako ereduak **VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan** daude.

Behin betiko bermearekin SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo zaie.

Bermeak itzultzeko eta ezerezteko, SPKLren 111. artikuluan eta HAKLAOren 65. artikuluan xedatutakoa beteko da.

10.- ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA

10.1.- Kontratazio organoak adjudikaziorako proposatzen den enpresa lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliodunetan (hiru presazko izapidetzearen kasuan) adjudikatu beharko du kontratua.

10.2.- Kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, hilabete pasatu baino lehen), Ezaugarrien Taulako P) letran besterik ezarri ezean.

Proposamena gutun azal batean baino gehiagotan balego, halako moldez non ekitaldi bereizitan zabaldu behar diren, epe hori B gutun azala irekitzeko ekitalditik zenbatuko da.

10.3.- Administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua eskaintzarik onena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta; kontratua adjudikatu gabe uztea, agirietan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago

Hala ere, SPKLren 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, Administrazioak, kontratua formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatzaileei konpentsazioa eman beharko die Ezaugarrien Taulako Q) letran ezartzen den bezala.

10.4.- Adjudikazioa arrazoitua izan beharko da, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatzaileei eta, aldi berean, kontratatzaile profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren interesdunek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsoa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Hauek dira, hain justu, jakinarazpenean adieraziko diren puntuak:

a) Baztertutako enpresa hautagaiei dagokienez, haien hautagaitza ezesteko arrazoien azalpen laburtua.
b) Adjudikazio prozeduratik baztertutako enpresa lizitatzaileei dagokienez, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta haiek ere, eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emandako balorazioak bananduta, adjudikazioduna barne.
c) Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunaren izena, enpresa adjudikaziodunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, haren eskaintza hori eskaintzak onartu zaizkien gainerako enpresa lizitatzaileek aurkeztutakoen aldean hobesteko erabakigarriak izan direnak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLren 153.3 artikuluaren arabera esleipena zer epetan formalizatu behar den zehaztu beharko da.

10.5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientean artxibatuko dira.

Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitako kasuren bat betetzen

delako, ez bada nahitaezkoa bitarteko elektronikoak erabiltzea proposamenak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, behin kontratua ebatzi ondoren eta errekurtsoak aurkezteko epeak errekurtsorik aurkeztu gabe igarotzen badira, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da.

Enpresa lizitatzaileek urtebeteko epean eskatzen ez badute, dokumentazio hori deuseztatu ahal izango da.

IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatu aurretik Ezaugarrien Taulako R) letran aipatzen diren kontratuen polizen eta lehen primen ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu. Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek eta bere kargura mantendu kontratuaren iraunaldian eta berme aldian.

Bermeen aseguruen mugak Administrazioak zehaztuko ditu kontratuaren xede den zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta.

11.2.- Kontratua indarrean den artean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruen dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta froga diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen eta/edo fakturen ordainketa eten ahal izango ditu, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1.- Administrazioak egiten dituen kontratuak lizitazioaren baldintzak zehazki betetzen dituen agiri administratibo batean formalizatu beharko dira. Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati esleitzen bazaio, eskritura publiko bidez egiaztatuko da enpresa elkarte hori eratu dela, hurrengo paragrafoetan (12.2 eta 3) xedatutako epean. Enpresaren bizitza aldi hori bat etorriko da kontratuaren iraupenarekin. Horrez gain, aldi baterako enpresa elkarteari esleitutako IFZ ere aurkeztuko da.

12.2.- Kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri ahal zaien kontratuen kasuan, horiek ezingo dira formalizatu enpresa lizitatzaileei jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratazio organoak bost eguneko epea (hirukoa presazko izapidetzearen kasuan) emango dio enpresa adjudikaziodunari kontratua formalizatzeko, eskaera horren agiria jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Horretarako, betiere, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta kontratuaren formalizazioa bertan behera uztea eragiten duen errekurtsorik ez da egon behar. Berdin-berdin jokatuko da errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etendura kentzea erabakitzen duenean.

12.3. – Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzaileei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen zioengatik kontratua epe horretan formalizatzen ez bada, administrazioak lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko dio, BEZik gabe, zehapen gisa. Zehapen hori, lehenik, behin betiko

bermearen kontra kobratuko da, eratu balitz, SPKLren 71. artikuluko 2. zenbakiko b) letran xedatutakoa ere kontuan hartuta.

Kasu horretan, hurrengo enpresa lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, eskaintzak sailkatutako hurrenkeran, agiri honen 8. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko puntuetan ezarritako epeak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa kontratistari.

12.6.- Ezin izango da kontratua gauzatu ez bada aurretik formalizatu. Salbuespen izango dira premiaz izapidetu beharreko espedienteetarako aurreikusitako kasuak.

V.- KONTRATUA BURUTZEA

13.- KONTRATUA BURUTZEA

13.1.- KONTRATUAREN BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Kontratuaren arduraduna izango da Ezaugarrien Taulako AD) apartatuan aipatutako kontratazio organoari atxikitako lanpostuaren titularra, titulazio egokia eta nahikoa duena, eta itundutako prestazioa behar bezala egiten dela egiaztatzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz zuzenean arduratuko dena.

Hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera beteko dituzte dagozkien jarduerak.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen administrazioak pertsona arduradunaren berri emango dio enpresa kontratistari, eta gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

13.2.- KONTRATUA BURUTZEKO ARAU OROKORRAK

13.2.1- Lanak egitea. Kontratua kontratazioa arautzen duten agiri hauetan ezartzen diren baldintzei zorrotz lotuta egin behar da, eta Administrazioak enpresa kontratistari interpretazioaz ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz.

Kontratua enpresa kontratistak gauzatuko du, SPKLren 311. artikuluan ezarritako erantzukizunekin.

Kontratuko lanak egiten diren artean eta berme aldia amaitu arte enpresa kontratistak sumatzen diren akats guztien erantzukizuna edukiko du.

13.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa adjudikazioduna izango da egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita administrazioarentzat zein hirugarrenentzat kontratua gauzatzeko ez egiteengatik, akatsengatik, metodo desegokiengatik edo ondorio okerrengatik sortutako ondorioena ere. Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.

13.2.3.- Burutzeko epeak. Lanak kontratua formalizatzen duen agiria sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira edo, hala badagokio, kontratu dokumentu horretan ezarritako hasiera egunean. Burutzeko epea eta ezarritako epe partzialak, halakorik balego, lanak hasteko datari lotuta egongo dira.

Izapidetzea presazkoa bada, kontratuari formalizatzen den egunetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen ekin behar zaio. Epe hori gaindituko balitz, kontratua suntsiarazi ahalko da, atzerapena administrazio kontratugileari eta enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion zioengatik

gertatu eta suntsiarazte arrazoituan hala jaso ezean.

Kontratua burutzeko epealdi orokorra eta epealdi partzialak Ezaugarrien Taulako S) letran zehaztuko dira; luzapenik egonez gero, horiek ere bai.

Kontratuaren epealdia indarrean dagoen legerian aipatzen diren kasuetan eta ezarritako baldintzak betetzen direnean soilik luza daiteke.

13.3.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan, enpresa kontratistak kalte-ordaina jaso ahal izango du jasandako kalte-galerengatik, baldin eta zuhurtziarik gabe jardun ez badu.

Ezinbesteko kasuak SPKLren 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOren 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz izapidetuko dira.

13.4.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK. Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen partziala betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, Ezaugarrien Taulako U) letran ezartzen bada.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua burutzeko epealdia eta Administrazioak zehaztutako epealdi partzialak bete beharko ditu.

Epe horietako edozein amaituta, enpresa kontratista berari egotz dakizkiokeen zioengatik berandututa balego, administrazioak kontratua suntsiarazi edo zehapen ekonomikoak ezartzea hautatu ahalko du. Zehapenen zenbatekoak Ezaugarrien Taulako U) letran finkatu dira.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLren 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratistaren berandutzea ezartzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretik interpelatzea ez hertsatzea.

13.5.- KALTE-GALERAK.

Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen Administrazioari egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

13.6.- KONTRATATUTAKO LANEI BURUZKO ARAU OROKORRAK

13.6.1.- Enpresak zerbitzua edo prestazioa kontratuan ezarritako epealdietan behar bezala emateko beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu.

Administrazioak uste badu elementuren bat ez dela egokia, baztertu egin dezake. Hala ere, enpresak ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkez dezake egutegiko hamar eguneko epealdian, zuzendaritzak erabakiaren idatzizko jakinarazpena bitarteko elektronikoz igortzen dionetik zenbatuta.

13.6.2.- Zerbitzugintzari atxikitako langileak enpresa adjudikaziodunaren mendeko baino ez dira izango, berak baino ez ditu izango bere enplegatzaile izaerari datxezkion eskubideak eta betebeharrak, eta gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere langileetako bat dena. Horretarako, betebehar hauek hartuko ditu bere gain enpresa adjudikaziodunak:

1.- Enpresa adjudikaziodunak baino ez du izango eskatzen diren titulazio eta esperientzia baldintzak betetzen dituzten eta kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeko kide izango diren langileak hautatzeko ardura, hargatik eragotzi gabe administrazioak baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea.

2.- Enpresa adjudikaziodunak ahaleginak egingo ditu lantaldea egonkorra izan dadin, eta haren osaeran gertatzen diren aldaketak noizean behingoak eta arrazoi justifikatuengatik gertatutakoak izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez hondatzeko. Administrazioa informatuta eduki behar du beti.

3.- Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko du enpresa orok berez duen zuzentzeko boterea benetan, era eraginkorrean eta etengabe erabiltzeko betebeharra, kontratua betearazteko ardura daukan lantaldeko langileei dagokienez. Zehazki, bere gain hartuko du soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, langileen ordezpenak baja hartu edo huts egiteko kasuetan, Gizarte Segurantzaren arloko lege betebeharrak, hala dagokionean kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne dela, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina ahalmena erabiltzea, eta alderdi enplegatu eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak.

4.- Enpresa adjudikaziodunak bereziki zaindu behar du kontratua betearazteko atxikita dauden langileek beren jarduera kontratuaren xedetik irten gabe egiten dutela.

5.- Enpresa adjudikaziodunak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, langileen plantillakoa; horren betebeharretako batzuk honako hauek izango dira:

a) Administrazioaren aurrean enpresa adjudikaziodunaren solaskide jardutea enpresa adjudikaziodunaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratzeko kontratuaren betearazteak dakartzan kontu guztiei dagokienez.

b) Lana kontratua betearazteko ardura duten langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateari dagokionez behar diren lan aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldeko langileek bere gain dauzkaten eginkizunak zuzen betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura doazela kontrolatzea.

d) Antolatzea kontratua betearazteari atxikitako langileen oporrak. Horretarako, koordinatu egingo dira enpresa adjudikazioduna eta administrazioa, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez nahasteko.

e) Administrazioari kontratua betearazteari atxikitako lantaldearen osaketan gertatutako aldaketa guztiak, unean unekoak nahiz iraunkorrak, jakinaraztea.

13.6.3.- Enpresa adjudikaziodunak bere bulego edo instalazioetan betearazi beharko du kontratua, kasu honetan izan ezik: zerbitzuak Administrazioaren bulegoetan eman beharra ezaugarrien taulan edo baldintza teknikoen agirian ezartzen bada eta berariaz baimenduta badago. Kasu horretan, enplegatu publikoek okupatzen dituztenetatik bereizitako lan esparruak jarriko ditu administrazioak enpresa adjudikaziodunaren eskura, eta enpresa adjudikaziodunak

izango du ardura zerbitzu horietara atxikitako bere langileek esleitutako kokalekua errespetatzen dutela zaintzeko.

Kontratuaren xedearen izaera dela-eta zerbitzuak administrazioaren lan zentroetan kokatutako instalazioetan etengabe eman behar badira, enpresa adjudikaziodunak, bestalde, prestazioa hasi aurretik, kontratua betearazteari atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela frogatu beharko du.

13.6.4.- Lanen jabetza. Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, Administrazioaren jabetzakoak izango dira eta, beraz, hark edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat eman dakiola, baldin eta behin betiko lan programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

13.6.5.- Jabetza intelektuala eta industriala. Kontrakoa berariaz aurreikusi ezean, jabetza industrial edo intelektualeko eskubideak sortu edo haiei eragin diezaieketen lanetan, enpresa adjudikazioduna izango da proposamenaren ideia originala izatearen erantzule edozein hirugarrenen aurrean. Halaber, berak bermatu eta ordainduko ditu jabetza industrialaren edo intelektualaren eraginpean dauden elementuak erabiltzearen kostuak.

Kontratazio honen bitartez administrazio kontratatzaileak sortzen den obraren gaineko jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubide guztiak eskuratzen ditu, hain zuzen ere industria aplikazioa edo ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen guztiak. Eskubide hauek Administrazioaren esku egongo dira oraingo legerian ezarritako epealdirik luzeenean, harik eta jabari publikora pasatu arte.

Eskubide horiek esklusibotasunez eskuratzen dira, orain arte dagoen ustiapen eta/edo euskarri mota ororen gainean, eta munduko herrialde guztietara salbuespenik gabe zabaltzen den lurralde eremuarekin. Ondorioz, ekoizteko formatu originala eta bera hedatzeko, erakusteko zein zabaldu edo ustiatzeko beste edozein modutarako komenigarritzat jotzen duen erreprodukzio oro gauzatzeko eskumena gordetzen du beretzat. Zehazki, administrazioaren titulartasuneko jabetza intelektualeko eskubideak sortutako obra erreproduzitu, banatu, jendaurrean komunikatu eta eraldatzeko eskubideak eta ekonomikoki ustia daitezkeen gainerakoak dira.

Enpresa kontratistak edo prestaketan esku hartu duen pertsona orok ezingo dute lana eurentzat erabili, ez hirugarrenei kontratatutako lanaren filiazioaren, testuen, marrazkien edo argazkien zatirik eman, ez haren edukia osorik edo partzialki argitaratu titular den administrazioaren berariazko baimen idatzirik gabe. Kasu guztietan enpresa kontratistak edukiko du betebehar horiek ez betetzeak eragiten dituen kalte-galeren erantzukizuna. Orobat, kontratuaren xede diren lanen emaitzako materialak Administrazioaren jabetza izango dira. Enpresa adjudikaziodunak hitz ematen du administrazioak jabetza industrial eta intelektualeko eskubide guztiak eskuratzeko eskatutako agiri guztiak sinatuko dituela.

13.6.6.- Bermearen erregela. Enpresa adjudikaziodunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, administrazioa enpresa adjudikaziodunarekin solidarioki kopuruak ordaintzera kondenatuko balute, ordaindutako kopurua hari jasanaraziko zaio, eta horretarako administrazioak ordaindutako kopuruak osorik berreskuratu arte egoki eta komenigarriak diren ekintza administratibo eta judizial guztiak erabiltzeko aukera gordetzen du beretzat.

13.7.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINDAKOAK

13.7.1.- Ezaugarrien Taulako AB) letran ezarritako berme aldia amaitu arte enpresa kontratistak kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz erantzungo du, bai eta lan horiek dauzkaten akatsez ere, nahiz eta administrazioaren ordezkariek lan horiek ikuskatu edo egiaztatu egiten ari diren bitartean edo haien egiaztapen, balioztapen edo ziurtapen partzialetan onartu (ez dio horrek

eskubiderik bat ere emango, ez da aske geratuko erantzukizun horretatik).

13.7.2.- Lan akastun edo gaizki egindakoa administrazioak berak emandako agindu baten ondorio zuzena bada, ez du erantzukizunik izango.

13.7.3.- Administrazioak uste badu ez direla kontratuko baldintza teknikoak bete, HAKLAOren 203. artikuluan xedaturikoa bete beharko da, eta hitzartutako lan hori ez baldin badago onartzeko moduan, HAKLAOren 204. artikuluan eta agiri honen 13.14. klausulan xedaturikoa bete beharko da.

13.8.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratuan ezarritako baldintzekin eta horien aldaketekin (egonez gero) bat etorriz benetan egiten dituen prestazioak kobratzeko, itundutako prezioak aplikatuz. Kontratuaren xedearen prezioa ordaintzeko modua Ezaugarrien Taulako V) letran ezarriko da.

Kontratua hainbat prestaziotan gauzatzen bada, ordainketa partzialak egin ahal izango dira, baldin eta ezarritako epealdiak betetzen badira eta prestazio partzialak SPKLren 300. eta 301. artikuluetan ezartzen denarekin bat etorriz egiten badira.

Egindako prestazioak kontratuan zehaztutakoarekin bat datozela frogatzen duten dokumentuen onarpen egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen ordaindu beharko du prezio Administrazioak; nolanahi ere, SPKLren 210. artikuluko 4. letran ezartzen dena aplikatuko da. Ordainketan atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen ordaina eman ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz (horren bidez eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dira), SPKLren 198.4 artikuluan xedatzen den bezala.

Lanak HAKLAOren 199. eta 200. artikuluetan xedatzen denaren arabera baloratuko dira.

Ezaugarrien Taulako W) letran ezarriz gero, enpresa kontratistak konturako ordainketak jaso ahal izango ditu kontratuaren xedean ezarritako prestakuntza eragiketengatik, SPKLren 198.3 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz. Berak eskatu beharko ditu.

13.9.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK. Kontratuaren araubide juridikoaren ondoriozko betebehar orokorrez gainera ondoko betebehar berezi hauek ere edukiko ditu kontratistak:

a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI DAGOKIONEZ. Enpresa kontratistak ingurumen, gizarte eta lanaren arloan Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidea, hitzarmen kolektiboetan edo nazioarteko ingurumen, gizarte eta lanari buruzko zuzenbideko xedapenetan, estatua lotzen dutenetan, ezarritako indarreko xedapenak bete behar ditu, eta bereziki SPKLren V. eranskinean ezarritakoak.

Zehazki:

1. Egin beharreko prestazioak lan ordenantzari edo hitzarmen kolektiboari lotuta daudenean, dagokion lan ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

2. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako behar diren laneko neurri guztiak ezarri behar ditu. Halaber, indarreko araudian laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu eta kontratatutako jarduera hasi aurretik betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak eta

plangintza ebaluatzea.

- Kontratua betetzeko lanetan ariko diren langileei prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea.

- Kasuan kasu, beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria edukitzea.

3. Enpresak lanetako batzuk azpikontratatzen baditu, azpikontratei arestiko betebeharren ziurtagiriak eskatu eta administrazio kontratatzaileari aurkeztu beharko dizkio. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileei jakinarazi behar dizkie azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

4. Langileei lanak egitean edozein motatako istripu edo kalte gertatuz gero, indarreko arauetan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean, eta hura ez zaio inoiz administrazioari iritsiko.

5. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta Ezaugarrien Taulako X) letran ezarriz gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLren 130. artikuluan xedatutakoa betez, preskripzio teknikoen agirian subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa jasoko da.

b) LAN PROGRAMA. Segidako traktuko zerbitzuen kontratuetan, Ezaugarrien Taulako AC) letran berariaz ezarriz gero, enpresa kontratistak lan programa aurkeztu behar du eskaintzarekin batera aurkeztutakoa garatzeko, adjudikazioa jakinarazten zaionetik hamabost egun pasatu baino lehen. Programa hau kontratazio organoak onartu behar du.

Enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako plana kontratuko dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Kontratazio organoak aurkeztu ondoko hamabost egunetan ebatziko du plana: onartu egingo du, aldaketak sartuko ditu edo betekizun batzuk ezarriko ditu, kontratuaren klausuletan ezarritakoa eragotzi gabe.

Enpresa kontratistak aurkeztutako lan programa onartzen ez den bitartean enpresa lizitatzaileak lizitazio fasean aurkeztutakoa izango da aginduzkoa.

Administrazioak erabaki ahal izango du fakturen ordainketari biderik ez ematea enpresa kontratistak behar bezala lan programa aurkeztu arte, eta horrek ez du sortuko faktura horien ordainketan atzerapenagatiko interesak kobratzeko eskubidea.

c) KONTRATUA GAUZATZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratistaren kontura ordainduko dira lizentziak, agiriak edo erakunde ofizial edo partikularren informazio oro lortzeko behar diren gastuak. Baita zerga, sari, tasa, konpentsazio edo indarrean diren xedapenen aplikazioak dakartzan gastu eta kargak ere, xedapen horiek berek zehaztutako moduan eta zenbatekoan.

Enpresa adjudikaziodunari dagokio kontratua betetzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala ofizialak nola banakoenak

d) LANKIDETZA ADMINISTRAZIO KONTRATATZAILEAREKIN. Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak eskuratu beharko zaizkio administrazioari (azken horrek beharrezko iritzitakoak, alegia), hala nola, argibideak

emateko bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea eta abar, eta batere kosturik gehitu gabe, eskuratu ere.

13.10.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enpresa kontratista adjudikaziodunak Administrazioak gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. tituluko eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen IV. tituluko betebeharrak betetzeko egiten dituen informazio eskakizunei erantzuna eman beharko die, eta kontratua gauzatzean kontratuaren xedearekin lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak aplikatu beharko ditu (horiek guztiak Ezaugarrien Taulako X) letran zehazten dira).

13.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenean SPKLren 214. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak haren zati bat hirugarren batzuei azpikontratatu nahi izanez gero, SPKLren 215. artikuluan ezartzen dena bete beharko du, eta enpresa azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak lege beraren 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz egin behar ditu.

Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa Ezaugarrien Taulako Y) letran zehaztuta egongo da; bertan ezarriz gero, enpresa lizitatzaileek eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: zenbat azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontratisten izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere kontratua egiten hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatuko duen, nor den enpresa azpikontratistaren legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Horrez gain, justifikatu egin beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta baieztatu egin beharko du enpresak ez duela kontratatzeko debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontratista berriei buruzko informazio berri guztia ere.

13.12.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, Ezaugarrien Taulako Z) letran edo SPKLren 205. artikuluan ezartzen den bezala (kasuak eta modua), SPKLren 207. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat eginez. Kasu horietan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, 205. artikuluan jasotako kontratua aldatzeko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, banaka edo batera, kontratuko hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorako aldaketa ez denean baino ez dira nahitaezkoak izango, BEZik gabe.

13.13.- KONTRATUA ETETEA. Honetaz SPKLren 208. artikuluan eta HAKLAOren 103. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da eta bertan honako datuak jaso behar dira: Administrazioak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, kontratuaren burutzapena zertan den eta eteteak ukitzen dituen prestazioen zatia edo zatiak edo osotasuna. Etetea erabaki ondoren, enpresa kontratistari berak benetan jasan dituen kalte-galerak ordainduko dizkio administrazioak, SPKLren 208.2 artikuluan adierazitako erregelen arabera.

13.14.- KONTRATUA ONARTZEA ETA LIKIDATZEA. Kontratua SPKLren 210. eta 311. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorriz jasoko da.

13.14.1.- Enpresa kontratistak xedea oso-osorik egindakoan, kontratuan ezarri bezala, kontratua

betetzat joko da, Administrazioa ados badago.

Kontratua amaitu dela jasota gera dadin, Administrazioak hura onartzeko egintza formal eta positiboa edo adostasun egintza eskatuko du entregatzen denetik edo kontratuaren xedea burutzen denetik hilabete pasatu baino lehen, edo Ezaugarrien Taulako AA) letran ezarritako epealdian.

Enpresa kontratistak xedatutako epean eman beharko ditu egindako lanak, eta, beharrezkoa balitz, aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du kontratazio organoaren ordezkaritzak eta preskripzio teknikoak betetzat joz gero, hura hartzea proposatu eta dagokion akta egingo da.

Kontratazio organoak erabakiko du enpresa kontratistak egindako prestazioak gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioak betetzen dituen, eta horretarako SPKLren 190. eta 191. artikuluetan xedatutako eskumenak izango ditu eta, beharrezkoa balitz, kontratatutako prestazioak egiteko eta hartutakoan ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Baldin eta enpresa kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, administrazioak ezetsi egin ditzake lanak, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

13.14.2.- Onarpenaren akta egiten denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen kontratuaren likidazioa egin beharko da eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta likidazio horren emaitza ordaindu beharko zaio.

13.15.- BERMEALDIA. Onarpenaren akta egiten denetik bermealdia, Ezaugarrien Taulako AB) letran ezartzen dena, hasiko da zenbatzen. Bermealdian administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, enpresa kontratistaren erantzukizuna azkenduko da (ezkutuko akatsengatikoa ez beste guztia), eta ondoren bermea itzuli edo kitatuko da eta, bidezkoa bada, ordaindu gabeko kopuruak ordainduko dira.

Baldin eta, bermealdian, egiaztatzen bada lanetan hutsak edo akatsak daudela, administrazioak eskubidea izango du enpresa kontratistari horiek konpontzeko erreklamatzeko.

Bermealdian administrazioak ez badu formalizatzen SPKLren 305. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan aipatutako eragozpenetako bat edo salaketa, enpresa kontratistak ez du edukiko erantzukizunik emandako ondasunengatik eta bermea itzuliko zaio.

Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota, eta bermealdia amaituta, enpresa kontratistari egotz ezin dakizkiokeen kausak direla medio, ez jasotzeko egintza formalik, ez likidaziorik egin ez bada, itzuli edo ezereztu egingo da bermea, luzapen gehiagorik gabe, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.

13.16.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritako kasuetan ezeztatuko da. Kontratuaren ezeztatzea kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Ezeztatzeak SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan ezarritako ondorioak sortuko ditu.

Ezaugarrien Taulako U) letran kontratua ez betetzeagatik zehapenak ezarri ezean, burutzapen baldintza bereziak, Ezaugarrien Taulako X) letran zehazten direnak, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izango dira SPKLren 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

Era berean, kontratuaren ezinbesteko betebeharra izango da Ezaugarrien Taulako J) letran eskatutako giza baliabideak edo materialak nahikoak direla atxikitzeko konpromisoa.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea atxikiko zaio, eta gainera, bermearen zenbatekoak kalteak estaltzen ez baditu, kalte-ordaina ere eskatuko zaio

13.17.- KONFIDENTZIALTASUNA. Administrazioaren titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak eta tratamenduak erabili behar badira agiri honen xedea den prestazioa betearazteko, entitate adjudikaziodunak tratatuko diren datuen tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bat etorriz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datuen babesarenak (DBEO), 28. artikuluan eta Estatuan hura garatzen duen araudiak xedatutakoarekin. Hirugarrenek datu pertsonalak nola tratatu behar dituzten konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko agirien ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.

Era berean, adjudikazioaren publikotasunari eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLren xedapenak albo batera utzi gabe, kontratazio organoak ezin izango du hedatu enpresek III. eranskinean konfidentzialtzat (sekretu tekniko edo komertzialak direla eta) jotako informazioa. Hala, enpresak arrazoitu egin beharko du zergatik diren konfidentzialak.

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.1.- Kontratazio organoak dauka eskumena administrazio kontratuak interpretatu, betetzean sortzen diren zalantzak argitu, interes publikoko arrazoiengatik haiek aldatu, kontratua burutzearen ondorioz enpresa kontratistari egotzi behar zaion erantzukizuna ebatzi, haren gauzapena eten, hura suntsiaraztea erabaki eta haren ondorioak zehazteko, SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, adierazitako mugen barruen eta ezarritako baldintzei eta ondorioei lotuta.

Halaber, kontratazio organoak enpresa kontratistek kontratua burutu bitartean egindako jarduerak ikuskatzeko eskumenak dauzka, lege horrek ezarritako baldintzetan eta mugen barruan.

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta ematen dituen erabakiak berehala bete behar dira.

14.2.- Kontratu honen interpretazioaz, aldaketaz, suntsiarazpenaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Honen erabakiek administrazio bidea agortuko dute, eta beraien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoarekin bat etorrita, eta kontuan izanda enpresa interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar dezaketela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

14.3.- Errekurtso berezia jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren egintzen kasuan.